



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 11

85. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako farmaziabulegoen ordutegiak eta guardiak manten ditzan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten baitie Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-24/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan Nazionala taxutu dezan. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00086. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behin betikoz onets dezan Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana. Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztu du (10. or.).
- 11-24/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita inbertsiorako laguntzak handitu ditzan enplegu-zentro berezietan. Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztu du (11. or.).
- 11-24/MOC-00089. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baititu Germán Rodríguez senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimenduarekin jarraitzea premiatzen baitu. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (12. or.).
- 11-24/MOC-00090. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udalikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (14. or.).

—11-24/MOC-00074. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita neurri zehatzak aplikatzen dituzan kirol inklusiboak sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00227. Galdera, toki-entitateetako kirol instalazioak berritzeko dirulaguntzen deialdiak dakartzan berritasunei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00224. Galdera, zerbitzuak kanpora ateratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00225. Galdera, Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00226. Galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00227. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00228. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00234. Galdera, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

- 11-24/PON-00001. Erabakia, zeinaren bidez onesten baita ponentzia bat eratzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko. Erregelamendu Batzordeak onetsi du (23. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialaren baitan, non presentzia baitaukate autonomia-erkidego guztiek eta, horrenbestez, baita Nafarroako Foru Komunitateak ere, erabaki bat hartu zen, genero-indarkeriaren biktima izandako emakumezko enplegatu publikoen administrazioarteko mugikortasuna errazteko.

Nafarroak eskumena izaki Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen estatutu-araubideari dagokionez, beharrezkoa gertatzen da langile horien estatutua aldatzea, erantzun egokia eta berme juridikoa emate aldera genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztiei, zeinek, Nafarroako Gobernuko funtzionario izanik, beste erkidego batera lekualdatuak izatea eskatzen baitute, beren eta beren familiaren babeserako eta segurtasunerako eskubidea betetzearren beren eskubide profesionalen kalterik gabe.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak bermatzea haiek babeserako duten eskubidearen parte da; baina, oroz gain, funtsezkoa da urratsak egiteko, emakume askori segurtasuna ematerantz, beldur eta antsietatezko espiral batean bizi direnak pairatzen duten indarkeriaren eta beren tratu txarren emaitzengandik aldentzeko eta/edo salaketa jartzeko aukeraren arteko sokatiran.

Administrazio publikoentzat betebeharra da eskubide horien baliatze egiazkoa bermatzea eta lasaitasuna emateko balio duten bitartekoak

antolatzeko gauza izatea. Horrela, beste entitate edo enpresa pribatu batzuen jardunerako eredu-garri izanen dira.

Indarkeria matxistaren aurkako borroka lehen-tasuna izan behar du administrazio guztientzat, eta biktima diren emakumeen eskubideen defentsak ekintza guzti-guztietan egon behar du presente, hasi babes-neurriak agudo hartzetik eta haien guztien koordinazioarekin segitu.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumei zor zaien babes hori gauzatzeko, beharrezkoa da administrazio publikoei dagokienez Nafarroako legeria aldatzea.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen zaio abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu batekina onesten duen horri.

«Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoen arteko mugikortasuna.

1. Emakumearenganako indarkeriaren biktima izanik Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten emakumezko enplegatuen eskubideen babesa bermatzearen helburua gauzatze aldera, Foru Komunitateak zilegi izanen du administrazioarteko mugikortasuneko neurriak ezartzea.

Horretarako, estatutu honen 35. bis artikuluan jasotzen den kasuan, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura jardun eta emakumearenga-

nako indarkeriaren biktima-izaera abuztuaren 30eko 4/2015 Foru Legearen 4. artikuluari jarraikiz aitortuta duten enplegatuek zilegi izanen dute eskatzea Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko beste administrazio publikora lekualdatuak izan daitezen. Mugikortasun hori gauzatzeko da helmugako administrazio publikoaren ordenamendu indardunak mugikortasun horren araubidean ezarritako nondik norakoekin, eta halaber ezarriko da zein baldintzatan gauzatzeko den aipatu helmugako administrazio publiko jadanik aipatuaren plantillako postu batera haiek lehen-tasunez iragatea.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko administrazio publiko bateko emakumezko enplegatu publikoa izanik genero-indarkeriaren biktima izan eta mugikortasun hori eskatzen duenak, bere babeserako eta laguntza integralerako eskubideaz baliatzeko, zilegi izanen du Nafarroako Gobernuak postu huts batera igarotzea, zeina esleituko baitzaio estatutu honen 35. bis artikulua ezarritako baldintzetan.

Administrazio publikoen arteko salbuespenezko mugikortasunari buruzko aurreikuspen hau betiere ulertuko da lanpostu-betetzearen eta mugikortasunaren beste modalitate batzuen kalterik gabe, zeinetarako eskubidea kasuko emakumezko enplegatu publikoak izaten segitu egingen baitu, lanpostu-betetzeari eta mugikortasunari buruzko prozedura arrunt bakoitzari buruzko araubidearen baitan».

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako farmazia-bulegoen ordutegiak eta guardiak manten ditzan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako farmazia-bulegoen ordutegiak eta guardiak manten ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-laguntza jarraitua 129/2003 Foru Dekretuak bermatzen du (maiatzaren 26koa, jendea hartzeko ordutegia, zaintzako zerbitzua eta oporraldia ezartzen dituena, farmazia bulegoetarako). Erregelamendu horrek farmazia-bulegoei buruzko estatuko nahiz foru-erkidegoko araudia garatzen du; hau da, Farmazia-bulegoen zerbitzuak arautzen dituen apirilaren 25eko 16/1997 Legea eta

Farmazia-laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea.

Maiatzaren 26ko 129/2003 Foru Dekretuan ezartzen da farmazia-bulegoen ordutegiaren gaineko araubidea. Halatan, astelehenetik ostiralera bitarte gutxienez ere 7 orduz ireki behar dituzte, eta larunbatetan, berriz, gutxienez ere 3 orduz. Ezaugarri jakin batzuk dituzten herrietan aplikatu beharreko gutxieneko ordutegi murriztua ere ezartzen da (700 biztanle baino gutxiago izatea, edo herrian zabalik dagoen farmazia-bulego bakarra izatea, baldin eta osasun-etxea bertan kokatua ez badago): 6 ordu astelehenetik ostiralera, eta larunbatetan ixten ahalko dute baldin eta inguru berean edo gertuko herri batean guardian dauden farmazia-bulegoen bidez bermatzen bada farmazia-laguntza eta farmazia-bulego horietara iristeko 20 minutu baino gutxiago behar badira. Igandee-tako, jaiegunetako eta gisakoetako ordutegia ere arautzen da.

Erregelamenduak orobat ezartzen du farmazia-bulegoen guardiako zerbitzuen gaineko araudia. Iruñean eta Iruñerrian 7 eremu ezartzen dira, halako moduan non horietako bakoitzean gutxienez ere guardiako farmazia bat egonen baita egunez; gauetz, berriz, gutxienez ere 3 farmazia egonen dira guardian (horietako bi, Iruñean). Tuteran, guardiako farmazia bat egonen da egunez eta beste bat gauetz 25.000 biztanle bakoitzeko. Gainerako lurraldean ere arautzen da guardiako farmaziak egotea. Orobat ezartzen da zer herritan den nahitaezkoa farmazialari baten presentzia fisikoa asteko egun guztietan (baita igande eta jaiegunetan ere), guardiako txandak dirauen denbora guztian.

Nafarroako Gobernua foru-dekretu proiektu bat lantzen ari da egun, indarrean dagoena ordeztuko duena eta jendaurreko ordutegia, guardiako zerbitzua eta farmazia-bulegoen aldi baterako itxiera

arautuko dituena. Foru-dekretu berri hori a-tzerapausoa da farmazia-bulegoek nafarrei ematen dieten zerbitzuari dagokionez, zeren eta, besteak beste, murriztu egiten baitu astelehenetik ostiralera eta larunbatetan gutxienez ireki beharreko orduen kopurua, murriztu egiten baitu gutxieneko ordutegi murriztua eta murriztu egiten baitu guardiako farmazien kopurua.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak foru-dekretu proiektu horren balorazioa egin du; errefusatu egiten ditu guardiako farmaziek herritarrei eman beharreko zerbitzuari begira foru-dekretuak ezartzen dituen murrizketak eta, hortaz, horren aurkako txostena eginen du.

Gogorarazi beharra dago ezen farmazia-bulegoak herritarrei ematen zaien osasun-laguntzaren parte integrala direla. Hori dela-eta, herritarrei emandako farmazia-laguntza mantendu beharra dago, herritarrek medikamentuak nahiz bestelako produktuak lortu ahal izatea bermatzen duten ordutegien bidez, eta hori bereziki garrantzitsua

da jaiegunetan eta gauez "guardiako farmazien" bidez, horiek bermatzen baitute tratamendua bizkor hasi ahal izatea edo errezeta bidezko medikazio erregularra lortzea.

Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du konprometitu dadin gutxienez ere mantentzera:

1. Farmazia-bulegoak irekitzeko gutxieneko ordutegiak.
2. Nafarroako Foru Komunitateko guardiako farmazien kopurua.
3. Farmazilairen presentzia fisikoa farmazia-bulegoetan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten baitie Gobernuaren lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten baitie Gobernuaren lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2024ko maiatzaren 30ean onetsi zen (aldeko 177 botorekin eta kontrako 172 botorekin) Kataluniako normalizazio instituzional, politiko eta sozialerako amnistiaren Lege Organikoa. Egun beltza Espainiaren historian, eraso izugarri larria batasun nazionalari, espainiarren arteko bizikidetasunari, demokraziari eta zuzenbide estatuari. 1978tik aitzina legea betetzen duten espainiar zintzoen aurkako atentaturik larriena.

Alderdi separatisten aitzineko amore-emate engabeko urteen ostean, Sánchek aukerarik gabeko ustelkeria-ekintza burutu du azkenean:

politikari batek beste politikari bati amnistia ematea boterean segitzeko, eraso larri-larri eginez hartara Espainiaren batasunari eta espainiar guztien arteko berdintasunari eta gure ordenamendu juridikoa urratuz.

Izan ere, ihes egin zuen Generalitateko lehendakari ohi Carles Puigdemonti eta 2017ko urriko estatu-kolpeagatik auzipetu edo kondenatutako gainontzekoei mesede egiteko amnistiaren legea onestea aberrazio juridiko aurrekaririk gabeta da Espainiako ordenamendu juridikoan, jada kondenatutako delinkuenteen zigorrak ez ezik jokabide ilegalak ere ezabatzen dituen. Ezin da onartu amnistia negoziazio politiko bateko ordaina izatea estatu demokratiko eta zuzenbideko batean, nola baita Espainia.

Amnistiaren legeak aurrekaririk gabeko ondorio larriak ditu:

Nazioa umiliatzen da, kolpismoa legitimatzen da eta zuzenbide estatua desakreditatzen da, zeren eta amnistiak berekin dakarrena baita onartzea bidezkoa izan zela sezesio-prozesua, eta bidegabeta, berriz, hura zigortu zuen zuzenbidea; hortaz, dinamitatu egiten da gure zuzenbideko estatu konstituzional eta demokratikoa. Amnistiak arrazoi politikoak ematen die kolpistei, eta legitimitatu egiten du urriaren 1eko sezesio-saiakera.

Eraso larria egiten zaio botere-banaketaren printzipioari; izan ere, auzitegiei kentzen zaie amnistia jaso dutenek egindako ustezko delituak epaitzeko aukera, bai eta delako *proces* izenekoa-ekin lotutako kausetan epaitutako guztia beteazteko aukera ere. Botere judizialari emandako beste "zaplazteko" bat da –berezik, Auzitegi Gorenari–, deslegitimatuko litzatekeelako 2017ko erroka separatistaren aurrean izan zuen jarduna.

2017ko estatu-kolpea dela-eta epaitutakoendako aukerako amnistiak orobat dakar espainiar guztien arteko berdintasun-printzipioa urratzea, Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen dena eta espainiar batzuei legea aplikatzea eta beste batzuei ez aplikatzea debekatzen duena. Kolpista katalandako "impunitate-lege" bat da, Pedro Sánchezen eta alderdi sozialistaren mesede hutsetan.

Ikuspuntu substantibo batetik esan daiteke Kataluniako normalizazio instituzional, politiko eta sozialerako amnistiaren Lege Organikoa konstituzioaren kontrakoa dela. Lege-testuaren tramitazioan zehar legegintza-prozedura urratu da, hainbeste non aldatu egin baita ganberetan borondatea taxutzeko prozesua, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua urratuta. Espainiako gobernuko kideek, araua orain babesten duten diputatu askok eta Pedro Sánchezek berak onartu

dute hori hainbatetan. Eta hori dena azken hauteskunde orokorrak baino lehen izan zen; hau da, espainiarrei ezkutatu zieten prest zeudela kolpismoari amnistia emateko boterean jarraitzearen ordainetan. Espainiarrek hautestontzietan hitz egin arte ezkutatu zieten, Pedro Sánchezek eta alderdi sozialista noraino amore emateko prest zeuden jakin gabe.

Amnistiaren Lege Organikoarekin urratu egiten dira Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan ezartzen den segurtasun juridikoaren printzipioa, 14. artikuluan ezartzen den berdintasun-printzipioa, 117. artikuluan ezartzen den epaileen eta magistratuen jurisdikzio-ahalaren eskumen osoa, 10. artikuluan ezartzen den giza duintasunerako eskubidea eta 24. artikuluan ezartzen den babes judizialerako eskubidea. Lege organikoaren azken xedapenetako lehen eta bigarrena konstituzioaren kontrakoak dira, Konstituzioa isil-gordean aldatzea dakartelako, gure ordenamendu juridikoan amnistia izaera iraunkorrez jasotzeko, Espainiako Konstituzioaren 167. eta 168. artikuluetan horretarako jasotzen den berariazko prozedura bete gabe.

Amnistiaren lege hau onetsi da Santos Cerdánen (PSN), Ione Belarraren (Unidas Podemos) eta Bel Pozuetaren (EH Bildu) babesarekin: aurrekaririk gabeko traizio-ekintza bat izan da, gure burujabetza entregatzen baita eta espainiar guztien arteko berdintasuna urratzen baita. Nafarroa beti izan da Espainiarekiko leiala, eta honek nafarrei traizioa egitea dakar.

Jasanezina da ikustea delitugile kolpistak nola agertzen diren Diputatuen Kongresuko tribunan, Gobernu umiliatu izanaz harro. Voxek aulkian eserarazi eta espetxeratu zituen. Sánchezek askatu eta amnistiatu egin ditu. Guk espetxera eramanez ditugu berriz ere, han egon behar baitute espainiar guztien arteko berdintasuna hautsi nahi dutenek.

Espainia eta espainiarrak beti egon dira bere agintari okerrenen gaintik, eta nafarrak era hala egonen dira. Voxek Sánchezen eta bere kideen kolpearen erantzunean buru izaten jarraituko du, horrela egin baitugu Pedro Sánchezek denik eta ustelkeria-ekintza handiena egiteko asmoa erakutsi zuenetik; alegia, delitugileei eta kolpistei amnistia ematea inbestidurarako botoak lortzearen truke.

Horregatik guztiagatik, Vox talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten die Gobernuo lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren

pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik, Espainiaren batasunaren, espainiar guztien berdintasunaren, gure demokraziaren, Konstituzioaren eta zuzenbide estatuaren aurkako legea delako.

2. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Pedro Sánchezen inbestiduraren ordainetan

kolpista katalanendako amnistiaren legearen alde bozkatu zuten Nafarroako diputatuak, aurrekaririk gabeko traizio honen arduradunak diren aldetik.

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan Nazionala taxutu dezan

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan Nazionala taxutu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikia dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko ekainaren 13ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Espainiako Errege Akademiak honela definitzen du eskola-jazarpena: "ikasle batek edo gehiagok beste bati egindako jazarpena, besteen aurrean hura iraintzeko eta laidotzeko xedez".

Zoritxarrez, praktika hori gero eta ohikoagoa da ikastetxeetan. Espainiako 10 ikasle-tik ia batek dio jazarpen-egoerak bizi izan dituela noizbait Lehen Hezkuntzako ikastetxean bertan.

Bigarren Hezkuntzan, datuek antzeko egoera erakusten dute: ikasle horien % 15,6k dio ikasle-derien batek jazarpena egin diola noizbait, sarritan edo maiz.

Adingabeen artean, kanpoko heriotzaren lehen kausa suizidioa da, batez ere eskola-jazarpenak edo *bullying*ak eragindakoa.

Baliabide elektronikoen eta sare sozialen bidezko *cyberbullying*a edo jazarpena da, orobat, adingabeen arteko jazarpenaren faktore nagusietako bat ikastetxeetan. Telefono mugikorrek eragin handia dute ikasleengan, txiki-txikitatik erabiltzen baitituzte.

Testuinguru horretan errealitate bereziki mingarriak ere badira. Autismoaren espektroko nahasmendua duten haurren arteko eskola-jazarpenaren datuak ikaragarriak dira: oraintsu egindako azterlanen arabera, autismoaren espektroko nahasmenduren bat duten haurren % 84k pairatu du inoiz edo behin jazarpena edo *bullying*a eskolan.

Agintariek, ikasleekin, eskoletako zuzendari-tza-taldeekin, gizarte zerbitzuekin, gurasoekin eta ikasleekin beraiekin, modu koordinatuan jardun behar dute eskola-jazarpenaren kausen aurka, hasiera-hasieratik. Hori egiteko modurik eraginkorrenetako bat da prebentzio-mekanismoak baliatzea al bait bizkorren detektatu ahal izateko balizko *bullying*-egoerak.

Ikastetxeek errespetuz eta normaltasunez bizi-tzeko lekuak izan behar dute. Onartezina da ikas-

le batzuk beldurrez joatea ikastetxera, ikaskideen jazarpen-jokabideen ondorioz.

Beharrezkoa da jazarpen-egoera potentzialen aurrean prebentzioz jardutea eta, halakorik gertatuz gero, hasiera-hasieratik jardutea, kalte handi-
goak saihesteko.

Ezinbestekoa da eskola-jazarpenera prebenitzeko plan nazional bat eta esku hartzeko protokoloak izatea. Azken urteotan, hezkuntza-administrazioek eskola-jazarpeneraren aurkako jardueraprotokoloak taxutu dituzte. Horren ondorioz, kasurik onenean, erregio bakoitzak bere jardueraprotokoloa onartu du, eskola-jazarpenerako kasuak detektatzeko, esku hartzeko eta konpontzeko moduei dagokienez dituen berezitasunekin. Kontuan hartuta autonomia-erkidego guztiek ez dutela prebentzio-protokolorik.

Beharrezkoa da nazio-mailako tresnak izatea, eskola-esparruetan gerta daitezkeen *bullying*-egoerei aurrea hartzeko irizpideak, moduak, mekanismoak eta tresnak aho batez bideratzeko. Era

berean, plan nazional horretan jazarleei hezkuntza-laguntza emateko programak jaso behar dira.

Prebentzio-tresnetan eta -mekanismoetan inbertitu behar dugu, aldez aurretik jardun ahal izateko. Halaber, irakasleen klaustroaren eta gainerako hezkuntza-komunitatearen etengabeko prestakuntza bultzatu behar da, familiak eta ikasleak sentsibilizatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernua premia dezan eskola-jazarpenera prebenitzeko plan nazional bat taxutzera.

2. Nafarroako Hezkuntza Departamentua premiatzen du irakasleen eta gainerako hezkuntza-komunitatearen prestakuntza bultzatzean ikastetxeetan indarkeria eta jazarpenera prebenitzearen arloan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/MOC-00086. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behin betikoz onets dezan Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behin betikoz onets dezan Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Langile autonomoak funtsezkoak dira Nafarroako enpresa-sarean eta ekonomian. Gure erkidegoa egituratzen dute eta gure herrietako jarduera ekonomikoan laguntzen dute. Horregatik, balioa eman behar diegu.

Urtebetean 450 langile autonomo galdu dira Nafarroan, batez ere emakumezko langile autonomoen artean. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitatean 46.554 autonomo daude.

Langile horiek askotariko zailtasunei aurre egin behar diete: inflaziotik, kotizazioetatik eta zergetatik heldu den gastuen hazkunderari, eskulanik ezari, administrazio-izapideen zamari, belaunaldiarteko erreleboari edo istripu-tasa handiari. Aurre egin behar diete kontziliazio-zailtasunei eta ekonomia berde eta digitalerako trantsizioari aurre egiteko arazoei, enpresa handien betebeharrak dituztelako, baina bitarteko berberak eduki gabe.

Norberaren konturako enpleguak, kasu askotan, langabezia-arazoei irtenbide bat emateko

balio diezaieke lan-merkatuan sartzeko oztopo gehien dituzten iraupen luzeko langabeei, gazteei edo emakumeei. Horregatik, enplegu-politika publikoaren aldeko apustu irmoa egin beharra dago.

Nafarroak inoiz izan dituen aurrekontu handienak ditu: 6.300 milioi euro. Hala ere, langile autonomoentzako zuzeneko laguntza murriztu egin da aurreko urteen aldean.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du behin betikoz onets dezan Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana, ekintzen egutegi bat jasoko duen berriazko laguntza-plan bat eta horretarako aurrekontua eta guzti.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gure autonomoendako Zero Kuota ezar dezan ekitaldi honetarako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du langile autonomoen kontratazioa susta dezan, kolektibo ahulen kontratazioa lehenetsiz lehenbiziko aldiz kontratatzen dutenean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du kudeaketaren transformaziorako eta profesionalizaziorako zuzeneko laguntzak eman diezazkien langile autonomoei.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du belaunaldiarteko erreleboaren arazoak arintzeko programa bat abian jar dezan.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu autonomoa sustatzeko laguntzak eman ditzan.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du kontziliazioa nahiz zaintzen erantzunkidetasuna babesteko neurriak onets ditzan.

8. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak eginen du mozioaren jarraipena.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita inbertsiorako laguntzak handitu ditzan enplegu-zentro berezietan

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita inbertsiorako laguntzak handitu ditzan enplegu-zentro berezietan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

UPN taldean defendatzen dugu enplegua orokorrean, eta desgaitasuna duten pertsonen enplegua bereiziki, gizarte politikarik onena dela. Enplegua funtsezkoa da pertsona horien autoestimurako eta beren autonomia eta bizimodu independentea sustatzeko, berretsi egiten du norbera komunitateko kide delako sentimendua eta pertsona horiek gizarteratzeko bitarteko nagusietako bat da.

Nafarroan 35.000 lagun baino gehiagok dute desgaitasuna; azken hamaika urteotan izan den kopururik handiena. Hori dela-eta, ezin dugu beste alde baterantz begiratu. Haien eskubideak sustatzeak lehentasuna izan behar du Nafarroarentzat, eta lan merkatura sartzeko eta lanpostu bat izateko eskubidea gogoan izan behar dugu, eta horren harira jardun, komunitate honetan erantzukizun politikoren bat dugunok, are gehiago Gobernuan erantzukizunak dituztenen kasuan.

UPN taldean kalitatezko enplegua defendatzen dugu, inklusiboa, berdintasunaren balioak errespetatzen eta diskriminazioa baztertzen dituen, desgaitasuna duten pertsonak integratzeko askotariko ideia eta ikuspegi berritzaileak sortze aldera, balio gehigarria emateko, nafarrei aukera ematen diena etengabe ikasi ahal izateko

Horretarako hainbat mekanismo ditugu, hala nola enplegu-zentro bereziak, enplegu lagundua eta enplegu arrunta, hala enpresa pribatuetan nola pertsona horiek funtzio publikoan sartzen direnean.

Mekanismo horiek guztiek gabeziak nahiz beharrak dituzte, eta administrazioak horiek konpontzen joan behar du.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

Inbertsiorako laguntzak areagotu ditzan enplegu-zentro berezietan, gutxienez ere bikoiztu ditzan, eta laguntzok eskuratzeko bidea malgutu dezan enpresei aukera gehiago emateko enplegua sortu nahiz mantentzeko.

Industria Departamentuaren inbertsiorako laguntzen deialdia alda dezan enplegu-zentro bereziek parte hartu ahal izateko.

Kontu-hartzaitzari instrukzio bat eman diezaion kontratazio espedienteen aldeko fiskalizazioa egin ez dezan horiek xede dituztenean enpleguko zentro bereziek ematen dituzten zerbitzu, obra eta hornikuntzak, kontratu erreserbaren % 6 a betetzen ari ez denean.

Enplegua indartu dezan funtzio publikora sartzeko laguntza emanda, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko arrakastako tresna baita.

Laneko ikuskaritzak zaindu dezan desgaitasuna duten pertsonen kontratazioaren % 2ko kuota betetzen dela, 50 langile baino gehiagoko enpresa arruntek bete beharrekoa.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak egin dezan mozio honen jarraipena.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/MOC-00089. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baititu Germán Rodríguez senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimenduari jarraitzea premiatzen baitu

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baititu Germán Rodríguez senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimenduari jarraitzea premiatzen baitu.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Berau sinatu duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, ostegunean, ekainaren 13an izan den Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordeak eginen du.

Zioen azalpena

Gizateriaren aurkako krimenak lehenengo aldiz forma argi eta zehatza hartu zuen 1945eko abuztuaren 8ko Londresko Estatutuan berariaz definitutako arau batean, zeinaren bidez Nurenbergeko Nazioarteko Auzitegi Militarra ezarri baitzen, Bigarren Mundu Gerrak eragindako izugarrikerien ondorioz.

Azkenean, gizateriaren aurkako krimenen bila-kaera kontzeptuala Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuaren 7. artikuluan islatu zen,

honela tipifikatzen baitu: "Estatutu honen ondorioetarako, "gizateriaren aurkako krimena" honako ekintza hauetako edozein da, herritar zibilen aurkako eraso orokortu eta sistematikoko baten parte gisa eta eraso egiten ari dela jakinda egiten denean: a) Erailketa; b) Sarraskia; c) Esklabotza; d) Deportazioa edo herritarrek nahitaez lekualdatzea; e) Espetxeratzea edo askatasun fisikoaren beste gabetze larri bat, nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko arauak urratzen dituen; f) Tortura; g) Bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, haurdunaldi behartua, esterilizazio behartua edo antzeko larritasuna duen beste edozein sexu-indarkeria mota; h) Nortasun propioa duen talde nahiz kolektibo bat jazartzea, arrazoi politikoetan, arrazakoetan, nazionaletan, etnikoetan, kulturetan, erlijiosoetan eta 3. paragrafoan definitutako generoko arrazoietan oinarrituta, edota nazioarteko zuzenbidearen arabera onartezin gisa unibertsaletan onartutako beste arrazoi batzuegatik, paragrafo honetan aipatutako edozein egintzari eta Auzitegiaren eskumeneko edozein krimeni lotuta, i) Pertsonak nahitaez desagerraraztea; j) Apartheidaren krimena; k) Antzeko beste ekintza gizagabe batzuk, sufrimendu handia nahita eragiten dutenak eta integritate fisikoa nahiz osasun fisikoa eta mentala larriki erasotzen dituztenak".

Espanian, gizateriaren aurkako krimenen tipifikazioa azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren bidez sartu zen. Gaur egun, krimen hori Zigor Kodearen 607. bis artikuluan dago tipifikatuta.

Diktaduran eta trantsizioan zehar egindako krimen frankistak eraso sistematikoko eta orokortua izan ziren gizarte zibilaren sektore askoren kontra, eta krimen horietako batzuk izan ziren hilketak, torturak, legez kontrako atxiloketak, exekuzio estrajudizialak, jaioberriak lapurtzea, esklabo aritzera behartzea, sexu-erasoak, herritarren nahitaezko lekualdaketa, eskubide politiko, kultural eta hizkuntzako errepresioa eta beste asko.

Frankismoak egindako gizateriaren aurkako krimenen testuinguru horretan kokatu behar da Iruñeko herritarrek 1978ko sanferminetan pairatutako polizia eraso indiskriminatua, zeinean Ger-

mán Rodríguez Saiz hil eta beste hamaika pertsona balaz zauritu baitzituzten, eta, horrez gain, hirurehun lagun ingururi arreta eman behar izan zitzairen ospitaleetan eta osasun zentroetan.

Nafarroan, zorionez, 2015eko legegintzalditik, eta Estatuak berak eta eskuineko partiduek trabak jarri dituzten arren –PPren gobernuak konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jarri zuen–, eskuin muturreko taldeen nahiz funtzionario publikoen indarkeriaren biktima izandakoen errekonozimenduaren alde egin da lan, eta Estatu osorako benetakoa adibidea eman da. Hori horrela, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legeari esker, maiatzaren 27an omenaldi publikoa egin ahal izan zitzairen horren bidez aintzatetsitako lehenengo hamabi biktimei.

Aurreko guztiagatik, arestian aipatu den eta nazioartean derrigor bete behar den araudiari jarraikiz, bai eta Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluari eta Memoria Demokratikoaren urriaren 19ko 20/2022 Legearen 2. artikuluari jarraikiz ere, Parlamentuak adostu du erabaki-proposamen hauek onestea:

1. Kontuan izanda Giza Eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluan eta Memoria Demokratikoaren urriaren 19ko 20/2022 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa, Nafarroako Parlamentu honek deklaratzeko du frankismoak diktaduraren eta trantsizioaren garaietan zehar egindako krimenak gizateriaren aurkakotzat jo behar direla ondorio guztietarako.

2. Nafarroako Parlamentu honek errepikatzen du babesa ematen diela 1978ko sanferminetan poliziak tiroz hildako Germán Rodríguez Saizen senideek jarritako kereilari, “Sanfermines 78-gogoa!” elkarteari eta jai horietan izandako gertakari izugarrien ondorioz larriki zauritutako beste hainbati, azken 46 urteotan erreklamatu den justizia behingoz erreala izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aipatu den 16/2019 Legearen bidez jadanik hasitako zereginean jarrai dezan, eskuin muturreko taldeen nahiz funtzionario publikoen ekintzen biktimen errekonozimendua eta erreparazioa lortzeko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentariak: Carlos Guzmán Pérez, Aranzazu Izurdiaga Osinaga eta Mikel Asiain Torres

11-24/MOC-00090. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialistari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko ekainaren 13ko Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin. Haren bidez premiatzen da azterketa bat egin dadin jasangarritasuneko eta ondarea kontserbatzeko ikuspegia nahiz udal ikuspegia duen tasa turistiko bat ezartzeko. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak eginen du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena

Nafarroako jarduera ekonomiko nagusietako bat da turismoa, eta nabarmen laguntzen du gure eskualdeko garapen ekonomiko eta sozialean.

Alabaina, bisitarien hazkundeak eta eguneroko koexistentziak hainbat erronka ere eragiten dituzte. Eraginkortasunez heldu behar zaie horiei, elkarriketaren eta plangintzaren bidez, jasangarritasun turistikoa eta tokikoa bermatzeko, eta ondare artistiko, natural eta tradizionalaren kontserbazioa ere bai, bai eta ziurtatzeko ere turismoaren onurak modu ekitatiboan banatzen direla tokiko komunitateen artean.

Estrategikotzat jotzen da kanon bat ezartzeko aukera aztertzea, eta berori diseinatzea hiru ardatz funtsezko izan ditzan: udal-ikuspegia, ingurumenaren jasangarritasuna eta kultur ondarea kontserbatzea.

Kanon horrek, turismoaren eragin negatiboak arintzen laguntzeaz gain, baliabide gehigarriak emanen ditu ere bai azpiegitura turistikoa indartu eta gure ondarea babesteko.

Horren inpaktuaren analisisian, tokiko eta foruko esparruaren arteko bilketarako formulak, edota ostatura bideratutako espazioetarako aplikazioan nahiz beste formula batzuetan, azterketako eta elkarriketako prozesu bat egon behar da erakunde inplikatu guztien artean, behar bezala jartzeko abian.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau dio:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du analisi bat egin dezan udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa garapen turistikorako ardatz gisa barnean hartzen dituen tasa turistiko bat ezartzeko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/MOC-00074. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri zehatzak aplikatu ditzan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2024ko ekainaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri zehatzak aplikatu ditzan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako neurri hauek ezarritan kirol egokitua babestu, sustatu eta aldezteko:

– Laguntza eta dirulaguntza bereziak, deialdi orokorren esparrutik at.

– Beraien entrenamenduetarako espazio publikoak.

– Boluntariora sustatu eta prestatzea.

– Toki-entitateentzako laguntzak, kirol inklusiboko jardueretarako, eta koordinazio plana.

– Berariazko prestakuntza teknikoa desgaitasuna duten kirolarientzat, teknikari, epaile edo buruzagi eginkizunak egin ahal izan dituzaten”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00227. Galdera, toki-entitateetako kirol instalazioak berritzeko dirulaguntzen deialdiak dakartzan berritasunei buruzkoa*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, toki-entitateetako kirol instalazioak berritzeko dirulaguntzen deialdiak dakartzan berritasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Lunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2024ko ekainaren 14ko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak toki-entitateentzako dirulaguntzen deialdi bat bultzatu du, kirol-instalazioak eraberritzeko. Milioi bat eurokoa izanen da laguntza hori.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak azpiegiturak berritzearen aldeko apustua egiten du, lurraldetasunaren, kohesioaren eta kirol-diziplinen aniztasuna bultzatzearen ikuspegitik, kirolplangintzari berdintasun handiagoa ematen dioten irizpide berriekin.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu: zer berrikuntza dakar toki-entitateen kirol-instalazioak berritzeko dirulaguntzen deialdiak?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/PES-00224. Galdera, zerbitzuak kanpora ateratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak zerbitzuak kanpora ateratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zerbitzuak kanpora ateratzeari buruz (11-24/PES-00224). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zerbitzu hauek ateratzen ditu kanpora:

– Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzua (IAT):

Hauek dira enpresa emakidadunak: Tuv Rheinland Navarra SA eta Revisiones de Navarra SA.

Ez dago adjudikazio preziorik, emakidadunek kanon bat ordaintzen dute. Emakida kontratua luzatu egin da maiatzaren 23ko 34/2018 Ebazpenaren bidez, 2029ko maiatzaren 25era arte.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-24/PES-00225. Galdera, Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreaken galdera dela-eta (11-24/PES-00225), honako hau informatu behar dugu:

Nafarroako Gobernuo Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren zuzendari nagusia Nafarroako Gobernuo lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuaren IV. kapituluaren jasotakoak.

Lehendakariaren aholkulari Blanca Cenzano Nafarroako Gobernuo lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 19.1 artikuluan jasotakoak.

Lehendakariaren aholkulari Xabier Casimiro Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 19.1 artikuluan jasotakoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

María Chivite Navascués, Nafarroako lehendakaria

11-24/PES-00226. Galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00226); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuko Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren zuzendari nagusia zergatik joan zen Nafarroako lehendakariarekin batera 2024ko martxoaren 6ko eta apirilaren 16ko Foru Araubideko Batzordearen bilkuretarat?

Lehendakaria une bakoitzean egokien iruditzen zaion Gobernuko kideekin batera doa. Kasu horretan, komenigarritzat jo zuen, besteak beste, Komunikazio eta Proiektzio Institutuzionalaren zuzendari nagusia bertan egotea.

– Zer eginkizun zehatz izan zuen ekitaldi horretan?

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuaren IV. kapituluaren jasotako egizkizunak izan zituen.

– Zuzendari nagusia Gobernuko gainontzeko kideekin ere joaten al da Parlamentuko agerraldietara? Joaten ez bada, zer irizpide darabil batzuetara joateko eta beste batzuetara ez joateko?

Bai, eskatzen dutenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko konseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00227. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2024ko maiatzaren 6ko 202403548 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Europako SEM Next Generation Funtsen betetzeari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-227). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2024ko martxoan, berritasun gisa, Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian informazioa jarri zen Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) funtsen hartzaileei buruz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotuta. Excel berri horretan, informazioa ematen da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean kudeatutako funtsen betetze mailari buruz, zuzenean eratorrita baitago kontabilitatetik eta egindako ordainketetatik.

Excelean jasota dagoen informazio orokorrak guztizko betetze maila jasotzen du (Nafarroako Gobernuak funtsen hartzaileei ordaindutako dirua) 10.E gelaxkan, 182.296.822 euro guztira 2024ko martxoan amaitzean. Hori horrela, C.2 menuan (Forma Juridikoa) pertsona eta erakunde pribatuak soilik aukeratzen ahal dira (hartzaile publikoak kanpoan utzita), eta honako hauek dira:

- 1.- Elkartek eta fundazioak
- 2.- Ondasunen erkidegoak eta sozietate zibilak
- 3.- Jabeen erkidegoak
- 4.- Erljiioari lotutako erakunde eta kongregazioak
- 6.- Enpresak (sozietateak, atzerriko entitateak eta ABEEak)
- 8.- Familiak eta autonomoak
- 10.- Beste batzuk

Atal horrek 6.602 gelaxka hautatu hartzen ditu. Horien guztien batura berriz ere kalkulatu da 10.E gelaxkan, eta guztizkoa 133.740.598 eurokoa da.

Hiruko erregela soila aplikatuta, 182.296.822 eurotik 133.740.598 euro egoteak esan nahi du mota horretako Europako funtsen % 73,36 alor pribatuari ordaindu zaizkiola (alor publikotik kanpo).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00228. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile lan-kontratudun mugagabeko finkoen kalte-ordainei buruz (1123/PES-00228). Hona Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Aipatutako ebazpenak honako lanbide kategoria hauei dagozkie:

– 406/2024 Ebazpena Zeladoreak izendatzeko (merezimendu lehiaketa - egonkortzea).

– 407/2024 Ebazpena EZTLak izendatzeko (merezimendu lehiaketa - egonkortzea)

– 500/2024 Ebazpena Erizainak izendatzeko (merezimendu lehiaketa - egonkortzea)

– 697/2024 Ebazpena Ospitaleko farmaziako BFEak izendatzeko (oposizio lehiaketa - egonkortzea)

1. Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

2. Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

Langile lan-kontratu mugagabedun ez-finkoak SAP GBn dauden datuen arabera) 174 dira guztira.

ZELADOREA:

– Aurkeztutakoak: 17

– Plazarik lortu ez dutenak: 13

– Plaza lortu dutenak: 4 (eszedentzia bat, uko egite bat)

EZLT:

– Aurkeztutakoak: 25

– Plazarik lortu ez dutenak: 10

– Plaza lortu dutenak: 15 (eszedentzia bat, uko egite bat)

ERIZAINZA:

– Aurkeztutakoak: 27

– Plazarik lortu ez dutenak: 21

– Plaza lortu dutenak: 6

BFE Ospitaleko Farmazia:

– Aurkeztutakoak: 1

– Plazarik lortu ez dutenak: 1 (gaindituta plaza gabe)

3. Zenbat diru jaso dute batez beste, kalte-ordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonen?

Batez besteko zenbatekoa apirilean: 20.627,55 €

4. Zenbat iraun du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

Kontratuaren batez besteko iraupena urtetan: 1,46

Lan-kontratuaren batez besteko iraupena urtetan: 0,97

EBAZP.	EGINKIZUNA	EPAIAREN ANTZINATASUNA	HASIERA DATA LAN KONTRATUA MGG EZ FINKOA	KONT. AMAIERA-DATA	LAN KONT. URTEAK	EPAI KONT. URTEAK	ZENBATEKOA
406/2024	ZELADOREA	2016/05/07	2022/06/23	2024/02/12	1,64	7,78	7.744,03 €
407/2024	EZLT	2016/04/10	2024/01/02	2024/02/12	0,12	7,85	3.657,50 €
407/2024	EZLT	2017/05/20	2023/12/18	2024/02/12	0,16	6,74	8.452,35 €
407/2024	EZLT	2014/07/19	2023/10/30	2024/02/12	0,29	9,58	9.192,33 €
500/2024	ERIZAINA	2011/04/11	2019/05/01	2024/02/27	4,83	12,89	30.963,83 €
500/2024	ERIZAINA	2004/03/01	2021/08/01	2024/02/27	2,58	20,01	51.458,40 €
500/2024	ERIZAINA	2008/01/21	2023/05/22	2024/02/27	0,77	16,12	36.704,80 €
500/2024	ERIZAINA	2006/02/04	2023/10/30	2024/02/27	0,33	18,08	25.696,80 €
500/2024	ERIZAINA	2010/10/16	2023/09/01	2024/02/27	0,49	13,38	21.383,48 €
500/2024	ERIZAINA	2010/10/16	2024/01/15	2024/02/27	0,12	13,38	34.574,75 €
500/2024	ERIZAINA	2010/01/01	2023/08/14	2024/02/27	0,54	14,17	20.592,67 €
500/2024	ERIZAINA	2017/01/07	2023/09/01	2024/02/27	0,49	7,15	12.642,00 €
500/2024	ERIZAINA	2018/07/01	2023/05/01	2024/02/27	0,83	5,67	13.080,93 €
697/2024	BFE/ELKARTUA	2016/07/18	2023/11/06	2024/03/18	0,37	7,67	12.641,80 €

ZENBATEKOA

GUZTIRA 288.785,67 €

5. Metatutako C-59 /22, C-110/22 eta C-159/22 auzietan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia foru-administrazioarekiko lan-harremana bukatu zaien pertsona horien egoerari aplikatzekoa al da? Zenbateraino?

Nahiz eta aipatzen den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia kontuan hartu behar den, auziaren ebazpena Espainiako auzitegien menpe dagoenez eta Auzitegi Gorenak bere irizpidea aldatu ez duenez, epai horren berri izan ostean, eta AGak berretsi duenez langile lan-kontratudunen tratamenduari buruzko Europako araudia ez betetzearen ondorioak, gure Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat, gure ordenamenduak ezartzen duen exijentziarekin bat adostu behar

direla (lanpostua eskuratzeak bat etorri behar duela merezimenduzko eta gaitasunezko printzipioekin), oraingoz ezin da aldaketarik aurreratu kasu horietan epaian betearazteko erabili izan diren irizpideei dagokienez, eta, horregatik beragatik, ezin da aldaketarik egin mota horretako epaiak funtsatzen dituzten inguruabarretatik eratorritako jarduketetan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00234. Galdera, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 17ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-24/PES-00234 galdera idatzia egin du Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

- Une honetan, jadanik egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 132. artikuluan jasotako nahitaezko txosten, memoria eta dokumentu guztiak. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren nahitaezko txostena prestatzen ari da, eta bertan agerian utzi

behar dira jarraitutako prozeduraren egokitasuna eta nola proposatutako arauaren ordenamendu juridikoarekin bat datorren.

- Behin Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak txosten hori eman ondoren, espediente osoa bidaliko zaio Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Departamentuko Gobernuaren Idazkaritzako, Erakundeekiko Harremanetako eta Araugintzako Zerbitzuari, eta hark aruari buruz informatu beharko du.

- Hortik aurrera, Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu beharko du proiektua aintzat hartu eta Nafarroako Kontseilura bidaltzeko. Organo horrek eskatzen zaizkion irizpenak eman beharko ditu (nahitaez eta modu ez loteslean) berrogeita bost egun balioduneko epean.

- Horregatik guztiagatik, aurreikusten da proiektua onesten eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen ahalko dela udan zehar, eta indarra hartzen ahalko du 2024-2025 kirol denboraldiaren hasierarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

J saila:
PONENTZIAK

11-24/PON-00001. Erabakia, zeinaren bidez onesten baita ponentzia bat eratzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentzia bat sortzeke erabakia”, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 2024ko ekainaren 5ean onetsia. Hona erabakiaren testua:

1. Erregelamendu Batzordearen baitan ponentzia bat eratzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko.

2. Epe bat ematea, 2024o ekainaren 13ko 17:30ak artekoa, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki

horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari arituko dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta 6 hilabetera bukatuko da. Ponentziak txostena egiteko ezarritako epea luzatzea erabaki dezake. Kasu horretan, Legebiltzarreko Mahaiari eta ponentziako kideei horren berri emanen die.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu ponentziaren osaerari eta eraketari buruz.

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

